

Euskararen eragozpenak Araban

• JUAN SAN MARTIN •

[EUSKALTZAINA]

Historian zehar euskarak edonon izan ditu eragozpenak, baina Arabakoak oso larriak izan dira, bereziki eskoletatik hasita. Gaurkoan, horren berri ez dakitenei edo jakin nahi ez dutenei aditzera emateari on deritzat, guzior onerako.

A. Agustín Kardaberaz *Euskaren berri onak* (1761) irakurri baizik ez dago. Han agertzen dituen salakuntzak, Araban gertatzen zenari buruz, oso larriak dira. Liburuaren hirugarren kapituluak 16-19. orrialdeetan agertzen zenez, berri onaren orde berri txarrak dira. Hor salatzeko duen garai hartako pedagogi bihurria, muinean antipedagogia zen. Ikus dezagun zer zioen:

«Hemen guraso eta maisuak falta handi bat erremediatu behar dute, eta gure Euskal Herriari oraindano baino mesede gehiago egin. Jenteen artean beste Lenguajerik Euskera baino ditxa gabeagorik ez da ikusi, eta, gure jatorrizko, edo jaiotzako Hizkera ezbalitz bezala eta Euskaraz hitzegitea, pekatu handiena balitz bezala, giza arteko kendu, eta lurpean ondatu nahi dute, eta Eskoletan sortija edo siñaleakin, azote eta kastiguakin eragotzi nahi dute. Zer erokeria itsuagorik hau baino? Euskaldun prestuak, ez arren horrelako ofensarik zuen lehenengo era beti behar dezuten Euskari egin. Zuen juzioa non da? Euskal Herrietan nola gauza onik izango da?»

Araban nenbilen batean, hango adiskide, eta Erregeren Guardiako Kapitan baliante batek behin esan zidan: Aita, nola Euskal Herrietan, umeen haziera ona, eta behar dan Doctrinari izango da, baldin Euskera ondatzeko ahalegin guziak egiten badira, eta gure mutiltxo, edo haurrai bildur eta azoteakin Euskera hitzegitea eragotzen bazait? Hotek berak gero edo Eleizagizon. edo Etzajauanak izan behar dute. Eta guraso edo Kurak diranean, nola ongi premia dan bezala, beren Etxe edo Hergoienetan (Herri txikia honela Araban deitzen diete) Doctrina erakatsi, eta konfesatuko dute? Nola beren familietako hartu emanak, eta beste behar diran gauzak ondo aditu, eta zuzenduko dituzte? Ikusten deguna da: gazteak Latin gramatika ikasten dutenean, naiz Gaztelaniaz, naiz Franzesez, naiz Euskaraz hitz egiten dute, eta hori eragotzen ez diete. Gramatikako Maisu famatu bat gure egunean zan. Latin gauzak ere Euskaraz erakusten zituena: eta Franzes Euskaldunai Gramatikako Erreglak Euskaraz adierazi, eta erakusten diezkate. Hala ez Eskolan, eta ez Gramatikan Euskara behin ere utzi behar ezta. Soldadu Jaun honek arrazoi handia zeukan. Ahaldutekean disparaterik bidegabeena da, Euskera gazteai debekatu, eta madarikatua ballego bezala kastigatu eta eragotzea.

Eskolan bertan erakatsi ordu onean, eta Erdaraz jardun dezatela, baina gero libre, naiz Euskeraz, naiz Gaztelaniaz: horrekin bietara egingo dira. Bestela Gaztelara gazteak badijuaz: han burla, eta lotsa handien kostuan baderre, Erderaz ikasten dute: eta nola Euskera kendu zieten, eta jarduten ez duten, beren Herri, edo Etxeetara bihurtzean, alde guzietara barragarriak ohi dira: eta egiaz esan ohi da: Gaztelania ez ikasi eta Euskera bai ahaztu. Gero hemen lotsa handiaz dakuskuna: ez hitz egiteko eta ez elkar aditzeko, Erderazko eta Euskarazko nahaspilla moldakaitz eta nahaskagarri bat entzun ohi da.

Bedeika nik dakidan Maestra estimagarri errespeto handiko bat, bere grazia onarekin eta kastigu gabe ume inozente sei urtekoari ere, Euskeraz, Erderaz eta Latinez berdintxit trebetasun handiaz eta ederki lotsarik gabe erakasten diana. Ojala hori bera Maisu guziak egiten balute: mutil mutu, lotu motel gutxiago Herrietan izango litzake».

Irakurleari aditzera eman beharrezkoa dut. A. Kardaberaz testu hau, hitzik aldatu gabe, irakurketa ohi den bezala errazteko, gaur egongo grafiaz jarri dudala. Bere grafiaren era jatorrean irakurri nahi duenak 1761ean inprimatu zen liburu haretara jo behar du, edo nik neuk *Euskararen ostarteak* (1998) liburuko 53-55. orrialdeetan azaldu nuen jatorrizko erara.

Pedagogiaren aurka doazen ohiturak bikain salatu zituen Dulantziko (Alegria) seme zen Paulo Mendibilek ere, Londresen argitaratu zuen *No me olvidés* (1829) liburuxkan. Justo Garate zenak eman zizkigun horren berriak bere lan batean. Ikus, *El anillo escolar en la proscripción del euskera*, *Bol. de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* aldizkariaren XXVIII, 1972, 174. orrialdean, liburuxka hartan zioenaren zatirik garrantzitsuenak zuzen jasoaz.

Mendibilek han zioen, bere hizkuntza euskara izanik, eskolan gaztelerez egitera beharturik zeudela, eta inor leratzen bazen euskarazko hitzen bat mintzatzera, nahiz eta bularretik xurgatu zuen Ama aipatu, *Madre*-ren orde, edo gurasoengandik ikasitako Jaungoikoa aldarrikatu, *Dios*-en orde, zigorrik larrienak leporatu beharra zuen, eraztuna eskuratu ez ezik, eskolako mutilik ankerrenak galtzak jaitsi eta maisuaren mahaian ipurdiz-

gora jarri, maisuak idizilez zigortzeko. Horren beldurrak behartzen zituen haurrak gaztelerez egitera eta gurasoak, haurrok eskolatuak izango baziren, euskara baztertu eta gaztelerez ahalegintzera.

Baina, Arabar jatorri batentzat ahaztu ezinezkoak dira Odon Apraiz zenak burututako hainbat ikerlan Arabako euskarari buruz, Erdi Arotik gure mende honetara arte. Ikusi besterik ez dugu askoren artean buruturiko *Odon Apraizi omenaldia* (1981), eta liburu honetan irakurri bereziki I. Baztarrikaren lana 9-21. orrialdeetan. Horrez gainera, baita ere E. Knörr-ek 1978an *Bol de la Institución Sancho el Sabio*-ren XXII. liburukian argitaratu eman zuten lana.

Gaztelera zein euskara bertako hizkuntzak

Arartekotzan nenguela, UA-koengandik (Unidad Alavesa) entzuten nituenak kontutan harturik, arabarren jakinerako argitara eman nuen Eguberrietako Kristma batean, 1695. urtean Gasteizen Gauon gabean kantatzeko Burgosen inprimatu zen *Villancico* hura, euskaraz eta gaztelerez zegoena. Konturatu zezaten gaztelerez gainera euskara ere bertakotzat har zezaten, bertako jatorra hain zuzen.

Bestalde, oroi 1698. urtean Kalahorrako ipiztikuaren agindua, non aditzera ematen zuen bere babespeko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa parteko herri euskaldunetan dotrinak eta predikuak euskaraz emateko.

On deritzat Araba elebidunari, alde batetik bertako jatorrizkoa oraindik zenbait herritan egiten den euskara delako eta, bestetik, legez Euskal Autonomia Erkidegoko delako. Horren arabera 1979ko abenduan onarturiko Estatutoaren barnean mugatu beharra bai du, gaztelera eta euskara, bi hizkuntzok ofizialtzat hartuz, eta Legebiltzarrak, 10/1982, azaroaren 24ko Legea, euskararen erabilera arauak onartzen dituenaz baliatuz. Ez baita legezko talde politikoko bakoitzari deritzaion eran erabiltzea, gehiengoek legezkatuan baizik.

Hala ere, atzo arte falanjista edo karlista-frankista izanak eta orain demokrata azaltzen diren askorentzat, nonbait ez da zilegi euskara Araban behartzea. Era hortatik hurbil dabiltzala esango nuke UA-ko horiek eta ez da batere harritzekoa euskararen etsai izatea. Horientzat gaztelera omen Arabako hizkuntza. Nonbait ez dute ezer jakin nahi bertako jatorriaz, ez eta ere oraindik Zigoitian, Aialan edo Aramaion euskaldun irautzen

dutenetaz, eta gutiago Bizkaitik eta Gipuzkoatik bertara joanak diren enpresetan asko direla euskaldunak. Ez eta probintziako toponimiaz eta arabarren euskarazko deituetaz. Baina nik neuk ere aitona nuen arabar euskalduna eta arbasoen jatorriak etsi ezinezkoak ditut.

Elebakarren hertsitasuna

Euskal Autonomia Erkidegoan ikasi beharra dago haurtzarotik elebidun

direnek gainerako hizkuntzak lasterrago ikasteko ahalmena dutela; aldiz, hizkuntza soil bat baizik ez dakitenei kaltegarri zaiela beraien hertsitasuna. Gainera, hizkuntz tipologiaz elkarregandik hain desberdinak diren euskara eta gaztelera hezitzen direnek berez dute beste batzuk lasterrago ikasteko ahalmena. Eta inoiz ez ahaztu, elebakardunek beren baitan eramaten du-

ten itsutasuna, besteena gorrotatzera artekoa dela. Horiek horregatik jartzen dute gaztelera munduko hobereena balitz bezala. Baina, mundua handia izaki eta hizkuntza asko dira. Hori bai, denak errespetagarriak, bakebiderik nahi baldin badugu. Zeren, hizkuntza bakoitzak bere inguru jakina du eta inguru bakoitzak bere balio bereziak, elkar ulertu beharrez anaitasuneruntza garamatzanak.

Arabako zenbait euskal idazle irakurri ditugunok, ezingo ditugu nolana nahi ahantzi Aramaio Pedro Barrantia (1682-1759), Sabandoko Juan Bautista Gamiz (1696-1773), Okondoko Jose Paulo Ulibarri (1775-1847), Gasteizko Raimundo Olabide (1869-1942) eta abar. Baina nik, ezta ere gure amagandik ikasi nituen Gabon kanta gogoangarriak, hark bere aita arabarragandik ikasiak.

Zendu berri dugun Federiko Krutwig euskaltzainari, duela bi urte, bera euskaltzain izendatu zutenetik mende erdi betetzen zirelako, omenez eskaini zitzaion *Iker-10* alea eta lan jakingarriak bada bertan. Adibidez, euskaltzainkideen lanen artean, E. Knörr-ek Federiko Baraibar arabar hizkuntzalaria eta Julio Urkixoren artean 1906 eta 1917. urteen bitarte horretan gurutatu zituzten gutun bilduma, aurkezpenez eta oharrez, 163-189. orrialdeetan. Benetan jakingarriak kulturaz arduratzen diren arabarrentzat. Eta, nik neuk ere, Arabako Billerlen (Legutiano) euskarak bere gogoia lehen aldiz piztu eta kezkatu zion F. Krutwig adiskideari eskaini nizkion gure amagandiko Gabon kantak, 299-311. orrialdeetan.

“
On deritzat Araba elebidunari, alde batetik bertako jatorrizkoa oraindik zenbait herritan egiten den euskara delako eta, bestetik, legez EAEkoa delako

“
Atzo arte falanjista edo karlista-frankista izanak eta orain demokrata azaltzen diren askorentzat, nonbait ez da zilegi euskara Araban behartzea